

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**





Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Proiektu guztietan bezala, hainbat elementu beharrezkoak dira negozio-ereduak aurrera eramateko. Gure ideiaren inguruan pentsatzean garrantzitsua da proiektua **modu errealista** batean ikustea, izan ere, dauzkagun baliabideak kontuan harturik, hauen arabera zer nolako mugak ditugun zehaztu beharra dago. Horrek ez du esan nahi hasi aurretik beharrezkoa dugun guztia jada eskura izan behar dugunik, baizik eta eskuratzeko gai izan gaitzkeen horiekin kontatzea, sinisten dugun horretan, hain zuzen ere.

Gure negozio ideia aurrera ateratzeko, batez ere, jendearen beharrezanetan pentsatu dugu. Honekin, gizarte erosoago eta errazago bat sortzen saiatuko gara. Horrela, guk eskaini nahi ditugun hainbat aukera ezberdin proposatu ditugu, gure helburuak betetzen duten proiektua sortuz.

Hainbat baliabide desberdinen artetik, hasiera batean zenbait nabarmenduko genituzke; Hasteko, **baliabide fisikoetan** zentratuko gara; hala nola, hozkailua, takilak, bizikletak, etab... Hauek lortzeko, bizikleta dendekin (Ciclos Gorliz) harremanetan jarriko gara. Aldiz, takilak Amazonen erosiko genituzke, ondoren gure lokaletan ipintzeko. Honenbestez, baliabide horiek ahalbidetuko digute gure balio-proposamena garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak lortzea.

**Finantza baliabideei dagokionez**, proiektuko kide bakoitzak kapital zati bat jarriko du 1.250€koa. Horrela, guztira 5.000€ko kapital soziala izango genuke. Udaletxe ezberdinei eskatuko diegun diru laguntzekin baliabide fisikoak eskuratzeko gai izango gara (hala nola, lokalak (Gorliz, Plentzia, Sopelan eta Getxon egongo dira, hortaz, herri hauetan takilak eta hozkailuak egongo).

- LOKALAK:			
<b>PLENTZIA</b> Areatza hiribidea 44. 	<b>GORLIZ</b> Itsabide kalea 	<b>SOPELA</b> Loroño kalean 	<b>GETXO</b> Ibaiondo kalea 

**Baliabide intelektualei** dagokionez, **webgunea** eta **aplikazioa** guk sortuko ditugu. **Giza baliabideei** dagokionez, taldeko bakoitzeko kide guztiak batez arduratuko da, gure trebezietan eta bakoitzaren esperientzietan oinarrituta. Sofiak, kostuak eta kontabilitatea eramango ditu, bada kontuak kudeatzeko abilezia du. Naia, proposatutako jardueretaz arduratuko da eta horrek aurrera eramateko behar diren baliabideak zehazten, Arai bi herriz arduratuko da (Adibidez, janaria berritu, lokala garbituz eta kontrolpean edukiz, ...) eta Ane beste bi herriz arduratuko da. Webgunean takila, hozkailu eta bidegorriaren inguruko informazioa eskainiko dugu. Aplikazioaren bitartez ordaindu eta alokatu ahal izango da, eta hor deskontuak ikusgai egongo dira (diru iturrietan komentatu dugun bezala).

Taldeko partaide guztiek komunean hainbat ezaugarri ditugu, hala nola, erosotasuna, bizitza osasuntsua, gizarte jasangarri bat aurrera ateratzeko gogoia; eta nagusiki, horiek dira lotzen gaituztenak. Taldeko partaide guztiek motibazioa edukitzea ezinbestekoa dela uste dugu, horrela lana azkarragoa eta atsegina izateko.

Laburbilduz, gure funtsezko baliabideak hauek izango lirateke:

<b>Baliabide fisikoak</b>	Lokalak, (Goiko taulan adierazita dago kokapena) Hozkailua (Goiko taulan adierazita dago kokapena) Takilak (Goiko taulan adierazita dago kokapena) Garraio elementuak (bizikletak) Eskaintzen ditugun zerbitzuak (Bizikleten alokairua, takilen alokairua eta janariaren eskaintza.) Lurrak (Uribe Kostan eraikiko ditugun bidegorriak administrazio publikoaren laguntzarekin)
<b>Baliabide intelektualak</b>	Webgunea (bertan informazioa egongo da) Aplikazioa (Informazioa eta bertan ordaintzeko aukera egongo da)
<b>Giza baliabideak</b>	Negozio ideia osatzen dugun bost langileok.
<b>Finantza baliabideak</b>	Kapitala(kapital soziala 1250€) Diru laguntzak (Administrazio publikoari eskatutakoa)